

# Datorren astelehenean, ekainaren 27an, Bilbon Euskotrenen tranbia-zerbitzuaren udako ordutegia indarrean sartuko da

## Tranbiak 15 minuturo ibiliko dira Bolueta eta La Casilla artean

Euskotrenek, Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoak, astelehenean, ekainaren 27an tranbia zerbitzuaren udako ordutegia martxan jarriko du.

Udako aldiaren maiztasuna lanaldiaren zatirik handienean, Bolueta eta La Casilla artean, 15 minuturo da.

**Astelehenetik ostiralera lanegunetan**, tranbiaren lehen irteerak honako hauek dira:

- Atxuritik: 5:58an.
- Boluetatik: 6:22an.
- La Casillatik: 6:26an.

Bestalde, hauek izango dira azken zerbitzuak astelehenetik ostiralera:

- Boluetatik: 22:52an.
- La Casillatik Boluetara: 22:41ean.
- La Casillatik Atxurira: 23:26an.

**Larunbat, igande eta jaiegunetan**, zerbitzua lanegunetan baino ordubete beranduago hasten da, eta ordu berean amaitzen da.

Euskotrenek tranbiaz joan behar duten pertsoneri gomendatzen die ordutegiak alde zuzenetik kontsulta ditzatela bai APP ofizialean, bai [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webguneko bilatzailean. Era berean, gogorarazten da garraio publikoan maskara nahitaez erabili behar dela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, **erabiltzaileek** Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333, eta eskura dute twitter-eko @euskotrenen kontua ere.

Igorpen data: ostirala, 2022ko ekainaren 24a